

JOXE MARI NARBARTE  
"TXIMIXTA"ri ELKARRIZKETA

Xarelan

81

**ELKARRIZKETA:** Joxe Mari Narbarte, "Tximixta" izengoitiaz ezagutzen dugunari. Goizuetako semea da eta berrogeita hemeretzi urte ditu.

**GAIA:** Txerriak.

- Oain "Tximixtak" zerrin gañen hitzein behar diu.

- Bueno zerrin gañen hitzeitezkeotan hemen kostunbre hau da: pues goizen yoten ga baserritara ta eoten ga, prepaatzen ga hiru/lau laun eta gero odola hartzeko itxekoandrea re bai, eta gantxookin hartu ta prepaatzen ga atzen bi ta aurren bat eta elkarreri beitzen diu eta esaten du "benga bota oaintxe" ta DA! botzen du, sangratzen du zerria eta odola hartzen do itxekoandreek eta itxekoandreek itten da martxa. Gu hasitzen ga zerria atetzen, iratzea patu erki, erre, gero txukun txukun maian gañen patu, ta gero beste... gero handikan beste... buelta man, garbittu ongi ongi, ta gero laun batek aieka batetik hartu, bestek bestetikan eta tripak ateri, itxekoandrea tortzen da berriz, harek tripak eramaten ttu bera lanen hasitzeko ta guk garbitzen du dena ongi ongi eta utzitzen du, ereki dena eta zerria han gosaldu bittarten. Ta gosaltzeko usadioa beti bezela juntatzen ga denak, baratzuri zopa izaten da ta gero beste zerbette ondotikan tortilla o... xixtorra o... lengo urteko, usadioa lengoa izaten da lengo urdaia urteko udaia zarra puxka bat yatekoa. Eta hola itten du eta gero atzera berriz bakotxa bere lanatara; ni zerri txikitza, dena txikittu, lemizi ea... ebaki hezurran ondotikan, gero kostilak eta denak kendu, aparte, txukun denak puskatan patu eta horrela bukatzen da zerriin martxa.

-**Eta itxekoandreek ze itten do zerriin puskakin?**

-Gero itxekoandreek zerri puskak, lemizi itten du tripa garbittu dena, hestek ongi ongi garbittu, eta gero hasitzen da odolkin mantekak eta hoiiek txikitzen, dena grasak eta hoiiek txikittu, odolakin nasi eta gero bi laun, batek hestek-ri eutsi ta bestek hora bete odolki itten.

-**Eta txixtorrak?**

-Ta gero horik odolki itten ttuzte eta txixtorrak itteko arrasalde ilunoar aldera puskatu dena gifiar guzik, dena makinan txikittu, salmuda eman ongi ongi baratzuri mordoska batekin, zenbat kilo den hainbeste baratzuri, eta itten dute salmudan utzi eun hartan eta hurrengo eunen salmudan eoten da, ta hurrengo eunen hasitzen da, hasitzen dia berriz, berriz buelta eman genero, material horrerri, eta hasitzen dia txixtorrak itten eta horrela bukatzen dute zerriin martxa.

-**Bueno ta... noiz hasi zerrik hiltzen?**

-Pues... mila ta beretzireun ta berroita amazapien hasi nitzan, hemeretzi urte nittula eta geroztikan hemen nabilla baserri ta herri ta bat eta beste ta... bueno ya... ya edadea re berroita hemeritzi urte dauzkit eta ya hemendik aurrera utzitzen e ya pentsatzen dut, zemette hasiko al da!

**-Eta zefiek erakutsi zizun?**

-Pues... erakutsi zian hemen Maleneko Frantxixku, ni gazte nitzala hora ibiltzen zen herri guziin eta... behin hasi behar nula ta hasi behar nula ta dezidittu nitzan ta hasi nitzan ta pues hemen nabilla gerotikan lan honekin.

**-Eta nola erakutsi zizun?**

-Pues... erakutsi zian goiz baten yon tzen, lan askookin tzen ta... yon tzen ta "bueno hik hil behar duk gaur" san tzian eta "bueno ifien dut prueba" ta gure amona odola hartzen aitzen tzen eta harek etzun nahi ta "ez tu ongi hilko Frantxixku" santen tzin amonak ta "ixilikan eon di" esan tzin Frantxixkuk gure amonari ta amona ixil-ixilikan eta labana eman tzian ta "hi bizak hola sartu behar dik" ta hola sartu nin ta ongi ate zen ta pues handikan aurrera beti gero... harek nola ze kentzen zittin ze gauza kentzen zittin lemiziko txandan txandan in nittun, eta eskribittu nittun ta... ta apuuntu nittun denak eta gero hurrungo hil nun denbon pues hairi beitun beitun ze... lemiziko ze kendu behar tzen, ta behin bat o beste hil nittunemon pues handikan aurrera burun hartu nittun ta handikan aurrera hola aitzen naiz, oso aixa aitzen naiz oain.

**-Etzo yakingo... zenbat zerri hil ttizun gutxi gorabera?**

-Ez; horixe bai eztekiala. Oain, urteen ayeetu nitzan urte batzutan laroei bat hiltzen, hurrengon hiruroei iguaal ta hurrengon... ta oain ibiltzen naiz pues berroei, berroitamarbat inguru hori.

**-Garai baten gehio hilko zian ba oain miño?**

-Bai. Garai baten baserri bakoitzen... bat o bi bis, bis gehinen bi hiltzen zian. Oain e badia bi hiltzen dianak miño... oain leno miño gutxio, leno miño gutxio. Ia oain atzea berriz e hasi da geixio hiltzen pues denak gaitza kolesterolen kolesterolen beldurra eta hori zaten tzun iendek eta horregatik pixkot bajatu zen miño oain atzera berriz medikuk saten men dutela pues horrek ez tula gaitzik kartzen eta zerria ongi ifia baldin bada, artookin eta gauza hoiekin ifia baldin bada, zerria gaizki ifia baldin bada pues gaitza bat sortu litteke, hori seuru izan.

**-Ze sasoi da obena zerria hiltzeko?**

-Pues zerria hiltzeko, hil hil litteke noiznahi miño zerria kuratzeko do asuntoa, hori do asuntoa grabena hor eta zerria kuratzeko da pues... azarotik hasi ta hilbeltza azkena bittarte zerria hor kuratu behar da ongi urdaiazapikok eta, urdaiazapikok kuratzeko behar da neua, neua behar da gero udaan ongi aguantatuko badu, eta hilabete hoiek da obenak neretzako, odola ya ke ta geldiik eoten den hilabete horik behintzat hoitan eoten men da odola geldiikan eta hilabete horik dia obenak, guri halaxe erakutsi ziuten eta guk, hala uste, nahi du erakutsi besteri re ondorekok e ikas zaten pues hilabete horitan zerria hiltzeko.

**-Ta ba al da zemette ikasi nahi dunikan?**

-Pues momentun... momentun eztut ikusten eta... zemettek hasi barko do... pues nik eztakit, nahi ta nahiezkokin hasi barko da

zemette miño, oain gutxi... oso gutxi, bat o beste aitzen dia miño itxeko berana itten ta hola, hola... dena baserrin, hemen publiko herriin ezta, ezta besteikan hola gutxi ibiltzen dia. Eta pues bueno ni re urtetan aurre noa ta nik e ixtanten utzi ifien dut eta zemette hasiko da beharrakin denak ikasten dute ta hola hasi barko da zemette.

**-Ta leno san diazo, zerria erre nahio zula iratzekin... beste modura miño. Zertik?**

-Bai. Pues nik hori nik butanokin ta... kus ttut hemen asko, ta neunek e tokatu naiz euldi txar batekin ta hola aitzea miño nik neretzako ez nuke sekulan zerrikan, kuratu behar den zerrikan butanokin erreko. Iratze da beste gusto goxo bat ematten dio iratzek yateko ta lanen aitzeko bertako re bai ta horrek butano horrek itten du... zea... enkojittu itten du... larrua bihurtu itten tzio, bildu itten du ta labanak ezin du ebaki hori re. Ta gero kalluk e gusto goxookin nahiz prejittu zartarin prejittuta ta erozin gauzatako re nik nahio dut milla aldiz iratzekin errea, neretzako askooz obe da.

**-Oain mataderitan ta, ohittura galtzen ai da, ez?**

-Bueno, mataderitan hilko dia zerrik miño karnizerin hola mataderin hiltzen den zerriik ez ta kuraratu behar izaten urdaiazpikoikan asko ta, pues seidun freskotan yaten dute ta pues horrek ya ez to inportantzikan azala re kendua itten da ta ya horrek beste gauz bat san nahi do miño kuratu behar dunantzako ai naiz saten oso gauza ona dela erretzea, iratzekin erretzea.

**-Zerri bat hiltzen, asi ta bukatu arte zenbat denbo pasatzen tzo?**

-Bueno, hor goizetikan... zazpik alden hasitzen ga ta... ba! bi ordu terdi hiru bat, hiru bat ordu gosari ta dena ta hiru bat ordu... hoik pasatzen dia.

**-Zerrik hil, bueno hil ondoren, gusto difeentea ba al dute zerrama do zerriin arten edo?**

-Bueno, zerriik beti zerramak gauza asko ttu: urdaiazpikoa haundia ta horik denak battu, miño zerrikan onana da ehun kilokoa, denak badakiu hori, ehun kiloko inguru hori, gauz onakin ifia, dena gauza goxoa, galtzeko deus ez tu izaten, haundiik izaten ttu gauza onak izaten ttu miño galtzeko gehio izaten du zerri haundiik. Horreetik izaten da merkeo re.

**-Ta zerriin dena aproxten al da, dena yaten al da?**

-Bueno, zerriina gehina yaten da. Zerriik tripan daukin gorotza besteikan gañekon gehina... gehina gehina yaten da: itsatsa, mutturra, axkaxalak bueno axkaxalak kentzen dia gañekon hankak e oso goxo-onak izaten dia, surra, belarrik... dena yaten da, gañeko dena zerria gehia ona. Lengo esanera zarra bezela "Jangoiko bezela dena ona dela zerria" esaten tzuten (Ja,ja...)

**-Zerria yateko modu onen te don o, yakitteko, ze in bar izaten da?**

-Pues bai, zerria ona don yakitteko pues hori da, beti beldurra izan behar du Trikinakin o gauza hoiekin eta hori analizatu in

bar zaten da; kentzen tzio mingaŕian axpitik puxka bat, kostillan ixkiñatik beste bat, eta... matalezurretikan e beste puxka bat, ta hori analizatu... tzea eramatten da ta analizatzen du ta... analizatzen aitzen dinak pues abixten dute itxera, telefonoa patu puxkari gañen eta deitzen du ta "bueno zerria yan ziñezke ta yan ziñezke do etziñezke yan". Pues horik dia pues Trikinakin hemen pasatu dia gauz batzuk eta berriz e beldurra behar beti rekonozittu behar da zerria hiltzen den denbon itheen yatez keotan.

**-Ta Trikina zer da ba?**

-Pues Trikina da pues, gauz bat... nik ikusi izandu dut, niri beterinario batek erakutsi izandu dit, zea... aumentoko... zea hori... makina hoikin e, ta hori da karakola ttiki bat izaten den bezela, aumentokin ikusten da karakola ttiki baten forma, bixi bizi bizia eoten dena haragi giñarren barrenen. Eta hori da gaitza Trikina ta oso txarra dena, hori baldin bada pues e litteke zerrikan yan.

**-Ta yan ezkerro ze pasatzen da?**

-Pues yan ezkerro pasatzen da pues... nahi ta nahiez medikutara yon bar tzo seidun, tratamentu baten yar bar tzo seidun ... batzuk saten dute purga seidun hartu bar dela ta beste o... beste pelizilina batzu do... beste metodok. Seidun medikuna behintzat yon bar tzo ta medikun maten dizun tratamentua iñez pues pasatzen da miño... kalentura haundi bat euki bar tzo bittarten... behin gaitza harrapatuz kero pasatu bittarten.

**-Ta hiltzeko arrixkuik bai al do?**

-Ez, ez ta ... aittu izandu dut miño ez ta hemen, Goizutan eondu izandu dia, hola horrekin miño ez ta iflor hil pues lemizitik momentutikan hartzen baldin bada medikuk asunto hori pues ez ta hiltzeko arrixkuikan ez tauki horrek.

**-Hemen, Juanan itheen o, non pasatu zen Trikinakin?**

-Bai, hemen pasatu zen Juanan itheen hostatu zaukitela ordun hemen kostum... usadio hori zen, zerrik hil ta... bertan ya saltzen tzian ta horrela miño zerri horiek etzian hemen bertakok, horik zerrik in tzittuzten asko behar tabernan ta saltzeko ta hola ta, erosi ta hola ta, erositako zerritikan hasi zian hemen, ta hori arratoi saten dute pues arrato arratoiatik etortzen dela gaitz hori eta hemen arratoia akaso limpieza herriin in gabentenikan eongo zen o kanterilletatik eta sortzen dia horik eta gero behintzat zerria batek yan ta hola pues hortara tokatu zen hemen Goizutan tokatu zenen miño aspaldiko urte hoitan ez ta tokatu izandu.

**-Ta ez dadila pasatu!**

-Bai hobe.

**-Bueno milla esker ta hurrenarte, e?.**

-Bai, zuri bai.